

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Hiri- eta landa-izaerako ondasun higiezinaren gaineko zerga. 2026ko ekitaldia. Etxebizitza hutsen gaineko ehuneko 50eko errekgua. (Espedientea: 2026/1401)

2026ko ekitaldiko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Ordenantza Fiskalak kuota likidoaren gaineko ehuneko 50eko errekgua ezartzen du subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko bizileku ez diren –ez errentamendu bidez, ez erabilera-lagapen bidez– bizitegi-erabilerako ondasunak.

Alkate-udalburuaren 2026ko uztailaren 24ko 1195 Dekretuaren bidez, ondasun higiezinaren gaineko zergaren subjektu pasiboaren hasierako zerrenda onartu da, ohiko egoiliar gisa inor inskribatuta ez duten bizitegi-erabilerako ondasun higiezinaren titularrei dagokienez.

Ohiko egoiliar gisa inor inskribatuta ez dagoen bizitegi-erabilerako ondasun higiezinaren hasierako zerrenda udal honetako Herriarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ) kontsultatu ahal izango da.

Alegazioak egiteko hamabost egun balioduneko epea ezartzen da, zergadunek aztertu ahal izan dezaten eta, hala badagokio, egoki iritzitako erreklamazioak aurkez ditzaten.

Iragarkia ALHAOn jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da alegazioak aurkezteko epea.

Alegazioak Audioko Udaleko Herriarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ) edo egoitza elektronikoa aurkeztuko dira.

Errekgutsoak eta erreklamazioak alkate-udalburuari aurkeztuko zaizkio, lehen aipatutako epeetan.

Hala ere, 2026ko azaroaren 23an amaitzen den borondatezko ordainketa-aldian, salbuespen-eskaerak aurkeztu ahal izango dira, zergaren ordenantza fiskalaren 16.5 artikuluan aurreikusitako arrazoiren batengatik.

Laudio, 2026ko uztailaren 27a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ